

ESKAINTZA

# BARATZE PARKE SAREA

**BOZKATZEAK SARIA**

**DU!**

Bozkatu dutenen artean sariak zozkatuko dira.

## “UDAKO BARATZE EDERRAK” LEHIAKETA

Baratze Parke Sarean baratzea baduzu, lehiaketa hau zuretzat da. Zure lursailan lan egiteagatik bakarrik, lehiaketa honetan parte hartu dezakezu, lehiakide gisara edota zure botoa ematen, UDAKO BARATZE EDERRENAK aukeratzeko. Erronka polita, animatuko zara?

### **LEHIAKETAKO OINARRIAK:**

- Lehiaketara aurkezten den lursaila Baratze Parke Sareko lursaila izan behar da, sareko edozein Baratze Parkekoa. Lehiaketa banakakoa da, ez da Baratze Parkea ordezkatzeko.
- Lehiaketan parte hartzeko: BPS Sareko Baratze Parke bateko baratzekidea izan behar da. Lehiakide bakoitzak hiru argazki bidaliko beharko ditu [baratzebarkea@ekogunea.eus](mailto:baratzebarkea@ekogunea.eus) helbidera. Argazkiak 2020ko abuztuaren 1etik aurrera ateratakoak izan beharko dira eta **2020ko irailaren 25erako** bidali beharko dira.
  1. **argazkia:** Lursaila agertzen den argazki nagusia (Baratze Parkea eta lursail zenbakia ikusten ez direla, anonimotasuna bermatzeko. Publiko egingo den argazkia).
  2. **argazkia:** Lursailaren zenbakia agertzen den argazkia.
  3. **argazkia:** Lursaila Baratze Parkean dagoela erakusten duen argazki panoramikoa.
- Baldintzak: Lehiakideek, emailez argazkiak bidaltzearekin batera: bere izen-abizenak eta harremanetarako telefonoa; bere baratze Parkearen izena eta lursail zenbakia eta lehiaketara aurkezten den lursailaren ezaugarri nagusiak deskribatzen dituen testu laburra bidali behar dute. Beharrezko ikusiz gero, antolakuntza lursaila ikustera joango da eta lehiakideekin jarriko da harremanetan. Lehiaketan parte hartzerakoan eta argazkiak bidaltzerakoan, hauek publiko egiteko baimena ere ematen da.

### **NOLA AUKERATUKO DIRA IRABAZLEAK?** Lehiaketak bi fase izango ditu:

**1. fasea (2020/08/01etik 2020/09/25ra):** Kutxa Ekoguneak izendatutako teknikariak lehiaketara aurkeztu diren Baratze Parkeetako **8 lursail ederrenak aukeratu**ko ditu eta hauek pasatuko dira lehiaketaren 2. fasera. Zortzi finalisten lursailen argazkiak publiko egingo dira Kutxa Ekoguneko web eta sare sozialetan **irailaren 30ean**.

**2. fasea (2020/10/01etik 2020/10/7ra):** Baratze Parke Sareko baratzekideek aukeratu dituzte 8 finalistetatik 3 irabazleak, bozketa bidez. Bozketa urriaren 1etik 7ra egingo da (biak barne). Pertsona bakoitzak boto bat emateko aukera izango du eta ezingo du bere burua bozkatu. Lursail ederrenarentzat bozka [baratzebarkea@ekogunea.eus](mailto:baratzebarkea@ekogunea.eus) helbidera bidaliko da epe barruan eta izen-abizenak eta harremanetarako telefonoa bidaltzearekin batera, bozkatzeko duen pertsonak bere Baratze Parkearen izena eta lursail zenbakia jakinarazi beharko ditu.

**ZER BALORATUKO DA?** Baratze ederrenak aukeratzeko irizpideak hauek izango dira: lore eta barazkien aniztasuna eta osasuna, lurraren kalitatea, baratzaren konposizioa eta koloreen edertasuna. Baratzegintza ekologikoa egitea ezinbestekoa izango da. Argazkiak kalitatekoak izatea komeni da baina ez da argazkigintza lehiaketa bat. Baratze ederrenen lehiaketa da.

**SARIAK:** 2020ko urriaren 9an ezagutuko dira Kutxa Ekogunearen webgunean hiru lehiakide irabazleak eta zozketako bi irabazleak.

**1.saria:** 80 €-ko balioa duen bertako produktuen saskia.

**2.saria:** 60 €-ko balioa duen bertako produktuen saskia.

**3.saria:** 40 €-ko balioa duen bertako produktuen saskia.

**Zozketa-irabazleak:** 30 €-ko balioa duten bertako produktuen bi saski zozkatuko dira, bozkatu dutenen artean.



[www.ekogunea.eus](http://www.ekogunea.eus)  
[ekogunea@ekogunea.eus](mailto:ekogunea@ekogunea.eus)



**ekogunea**  
kutxa FUNDAZIOA